

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORDOAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea zerga ordenantzari, zeinak arautzen baitu hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Gordoako Kontzejuaren bide publikoetako lurzoru, lurpe edo lur gaineko espazioaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen tasa

Kontzeju honek hasierako onespena eman zion, 2018ko apirilaren 11n egindako bilkuran, bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo lur gaineko espazioaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa arautzen duen zerga ordenantzari, eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez jendaurrean egon den bitartean, behin betiko onetsita geratzen da. Horregatik, aldaketa oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin Toki ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Zerga ordenantza, arautzen duena hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Gordoako Kontzejuaren bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo lur gaineko espazioaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen tasa

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

1. Kontzeju honek, bat etorrit Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak ezarritakoarekin, tasak ezarri eta galdegiten die hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei, kontzejuaren bide publikoetako lurzoru, lurpe edo lur gaineko espazioaren erabilera pribatibo eta aprobetxamendu berezia egiteagatik.

2. Hori dela eta, honako hauek dira hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak:

a) Argindarraren, uraren edo gasaren hornidura egiten duten enpresak.

b) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, telekomunikazio sare publikoak zati batean edo osorik erabiliz, eta kontzejuko bide publikoetako lurzorua, lurpea edo lurraldearen gaineko aireko espazioa era pribatuan erabiltzen duten edo horien aprobetxamendu berezia egiten dutenak, sare edo instalazio horien titularra edozein dela ere.

c) Hornidura zerbitzua eskaintzen duen beste edozein enpresa, baldin eta zerbitzua emateko erabiltzen dituzten hodiak, kableak eta gainerakoak kontzejuko lurzorua, lurpea edo lurraldearen gaineko espazioa okupatzen badute.

3. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituztenak ere sartuko dira.

2. artikulua

Ordenantza hau Gordoako Kontzejuaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Zerga gaia da kontzejuko bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen eta lur gaineko espazioaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, interes orokorreko edo auzokideen zati handi bati eragiten dioten zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa ustiatzaileen aldetik.

2. Erregimen hori aurreko artikuluan zehaztutako enpresei aplikatuko zaie, hornidura emateko erabiltzen dituzten sareen titularrak badira, edo, titularrak izan gabe ere, sare horiek erabiltzeko, sare horietara sartzeko edo sareen arteko lotura egiteko eskubidea badute.

3. Erregimen berezi honetan ez dira sartuko telefono mugikorraren zerbitzuak ematen dituztenak.

4. Bateragarriak dira tasa hau eta toki erakundeen eskumen diren zerbitzuak eskaintzeagatik edo jarduerak gauzatzegatik ezar daitezkeen beste tasa batzuk, baldin eta, haietan, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak, foru arauetan ezarritakoaren arabera, subjektu pasibo izan behar badira; salbuetsita geratuko dira, tasa hau ordainduz gero, udalaren bide publikoetako lurzoru, lurpe edo lurzoruaren gaineko espazioaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela-eta eskatzekoak diren beste tasa batzuetatik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoaren zergen foru arau orokorraren 35. artikuluan adierazitako entitateak dira subjektu pasibo zergapekoak, baldin eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titular badira eta hornidura horiek interes orokorrekoak badira edo auzotarren gehiengoari eragiten badiote eta kontzejuko bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo lur gaineko espazioaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten badute.

2. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituztenak ere sartuko dira.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

5. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokorren menpe egongo da beti.

V. Zerga oinarria

6. artikulua

1. Hornidura-zerbitzuak ematen dituzten enpresek urtean zenbateko diru sarrera gordinak ateratzen dituzten Gordoan eskuratzen duten fakturaziotik, horren arabera izango da tasaren zerga oinarria.

2. Diru sarrera gordinak izango dira entitateari egotzi ahal zaizkion eta kontzejuan emandako zerbitzuengatik berak kontraprestazio moduan jaso dituen diru sarrerak.

3. Emandako zerbitzuengatik kargatu diren zeharkako zergak ez dira izango diru-sarrera gordin, ez eta hirugarrenen kontura kobratu diren zenbatekoak ere, hornidura-zerbitzua ematen duen enpresaren sarrera propioak ez badira.

4. Hornitzean, bereak ez diren sareak erabiltzen dituzten enpresek diru-sarrera gordinetik kenduko dituzte beste enpresa batzuen sareetara sartu edo interkonexioa egiteagatik haiei ordaindutakoa. Sareen titularrak diren enpresek beren fakturazioko sarrera gordinetan sartu beharko dituzte kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoak.

5. Arabako Lurralde Historikoko zergen Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan eta zerga ikuskatzailetzaren Arautegi Orokorrak 37. artikuluan xedatutakoaren ildotik, sareen jabe diren enpresek beren sarera sartu edo interkonektatzegatik ordainketak egiten dizkieten enpresei buruzko argibideak emango dizkiote kontzejuari, baldin eta azken horrek eskatzen badizkie argibide horiek.

VI. Kuota

7. artikulua

1. Honela kalkulatu da zerga kuota: hornidura enpresak kontzejuan zer fakturazio lortzen duen urtean, fakturazio horretatik eskuratutako diru sarrera gordinen ehuneko 1,5.

2. Erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela-eta udal jabari publikoa apurtu edo hondatzen bada, onuradunak, dagokion tasaz gain, egin diren berreraikitze edo konponketa gastuen kostua osorik itzuli beharko du, baita horri dagokion zenbatekoa alde aurretik gordailutu ere. Kalteak konponezinak balira, kontzejuak kalte ordaina jasoko du, apurtutako ondasunen balioaren edo hondatutako kalteen zenbatekoaren adinakoa.

3. Kontzejuak ezin izango ditu barkatu, ez zati batean ez osorik, paragrafo honetan aipatutako kalte ordain eta itzulketak.

VII. Sortzapena eta zergaldia

8. artikulua

1. Jabari publikoa okupatzearen tasa sortzen da, kontzejuaren bide publikoetako lurzoru, lurpe edo lur gaineko espazioa era pribatiboan erabiltzeagatik edo horien aprobetxamendu berezia egiteagatik, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresentzat:

1.1. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, zerbitzua ematen denean edo jarduera egiten denean.

1.2. Tasaren izaerak aldikako sortzapena eskatzen badu, urtarrileko azken egun balioduna baino lehen izango da sortzapen hori, eta zergaldia aurreko urte naturala izango da.

VIII. Likidazioa eta dirua sartzea

9. artikulua

Dagokion likidazioa egingo da kontzejuaren alde, eta ordenantza honen arabera dagokion diru sarrera egingo da.

IX. Tasen kudeaketa

10. artikulua

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek urte natural bakoitzaren lehen hamabost egunetan aurkeztu beharko dute kontzejuan aurreko urtean lortutako diru sarrera gordin guztien aitorpena. Aitorpen horrekin batera, kontzejuan fakturatutakoaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, bai eta administrazio batzarrak kasu bakoitzean eskatzen duena ere.

11. artikulua

1. Aurkeztu eta sartutako likidazioak behin-behinekoak izango dira, administrazio batzarrak egiaztapen egokiak egin arte. Egiaztapen horiek egin ostean, behin betiko likidazioa egingo da, zeina interesdunari jakinaraziko zaion.

2. Borondatezko aldiko epea bukatu eta ordaindu ez bada, premiamendu bidez eskatu ahal izango da.

3. Dena dela, behin-behineko likidazioak behin betiko bihurtuko dira aurreko artikuluan aipatzen den aitorpena aurkezten den egunetik hiru urte igarotakoan.

12. artikulua

Zergei buruzko arau hausteei eta horien kalifikazioei dagokienez, bai eta horien zigorrei dagokienez ere, zergen foru arau orokorrean eta zerga ordenantza orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Gordoa, 2018ko ekainaren 11

Lehendakaria

RAMÓN GARCÍA DE ALBENIZ